

OTEIZA, EUSKAL IZAERAREN BOZERAMALEA

Oteiza, Imanol Lizarraldek Aberriberrin orain bi urteko artikulu batean zioskun bezala, Euskadi ideal baten idea buruan bira eta bira zebilkion azken euskaldunetarikoa bat dugu. Euskal Herriak ez du asmatu berarekin; egun, zor handietan dago berarekin. Bere bizitzaren azken urteetan agertu zigun humore zakar horren aitzakian, beti bere kaxa eta bere kabuz zihoan eszentriko itxura horretaz harago ez dugu gehiago ikusten asmatu, eta, tamalez, sarriaskotan egin ohi dugun bezala, bide-bazterrean utzi dugu gure kulturaren oso aintzat hartu bekarko genuekeen artista euskaldun buruargi hau.

Iraganean murgildurik, aintzin-aintzinako euskaldunen historiaurrera so eginez, jakin izan zuen euskaldunen zerizanaz gehiago sakontzen, garen hauek nortzuk izan ginen aspaldi zaharrean, nondik gatozen eta zer iraganeko arte-espresio bide izan dugun aurrekari egun garen hau azaltze aldera; berak esan eta esan ibili zen moduan: “atzerantz begira, aurrera eginez, arraunlariek bezala”. Hartara, mikro-cromlech-en (arrespil txiki) bidez bere gorenera ailegatu zen kultura baten oinordeko zuzen-zuzenekoak garela azalduko digu.

Eskultura arloan bereziki nabarmendu bazen ere, ez dugu hori jorratu zuen arlo bakarra, ez, eskultura eta, oro har, artearen gainean zabala eta sakona ditugu bere hausnarketak, eta beroiek, hain justu, idazki eta liburu askotarako abagunea eskaini zioten. Quosque Tandem bere obrarik ezagunetarikoa dugu, ziur askoan berorren bidez izan baikenuen lendabizikoz bere pentsamenduaren berri; halere, horretaz aparte ere, baditugu bere pentsamendu eta honen bilakaerara hurbiltzen gaituzten geroztiko beste hainbat obra, idazki eta artikulu. Eskultura eta aipaturiko hausnarketarako idazkiez gain, ezin dugu bere poesia atzendu, ez eta, berorri, beste arte-espresio bideen aldean, aitortu zion gailentasuna ere.

Oteizak euskal historiaurreko neolitikoaren azken alderako harrespil txikiaren espresio bidean aurkitu zuen euskal espiritua bere gorenean. Kantauri aldeko harrespil txiki bitxi horretan ikusi zuen islaturik ezin hobeki gerora bere arte negatiboaren teoria izango zena. Arte negatiboaren bere ekarpenarekin azalduko digu berak artearen bilakaeraz duen pentsamendua. Bere ustetan, artea kanpo errealitateari izaten zaion beldur-izu baten eraginez jaiota, gerora, kanpo errealitatearekiko harremanak aldatu ahala, bere forma ere, pixkana pixkana, aldatuz doa, aldatu ere, hainbestaino, non azken fase batean, bizitzarekin behingoan bakezkoak zeharo eginda, bizitzara etortzen den bueltan eta hustutzen den zeharo kanpo errealitate osoari leku egite aldera. Momentu goren horrelako bat aurkitu uste du Oteizak Neolitiko aroaren azken aldeko harrespil kantauriar bitxian.

Aipaturiko pentsamendu hau jorratu eta gero, harago joango zaigu Oteiza eta garatu duen ikuspegi hau historia eta mundu zabaleko beste kulturekin eta beste autore edo filosofo batzuek esandakoarekin parekatzen ahaleginduko da ahalegindu. Hori egite aldera, Eckart maisua bezalako hustutze mistikoei, Heideggerren honen inguruko teoriari, edota Ekialdeko kulturei eta bereziki Zen pentsamoldeari erreparatuko die eta, hori eginez, saiatuko da elkarrekin komunean dituzten ukipen-puntuak azalarazten.

Esaniko guztiarengatik dugu Oteiza oso aintzat hartu beharreko autore, ez soilik guretzako, euskaldunak garen aldetik, baizik eta, oro har, arte eta artearen gaineko filosofian interesaturiko edozeinentzat. 1957.eko Sao Paoloko IVko bi urtetan behingo lehenengo saria irabazi zuenetik etengabea izan zen mundu zabaletik zuzendu zitzaion arreta, baina, halere, uste dut gurean oraindik gaudela bereziki zorretan berarekin eta gaur egun ere asko dugula euskaldunok bere pentsamendu eta hausnarketetatik jasotzeko eta geure buruaz jakiteko berak euskal nortasunaren gainean egindako erreflexioetatik.

OTEIZAREN PENTSAMENDUA

Oteizaren irudiko, artearen xedea ez da bere buru azkenik gabe luzaraztea, ez; arteak bizitza du helburu, ezerezetatik jaiota, helburu nabarmen terapeutiko bat du, kanpo errealitateko ezin kontrolatuzko elementoak erakarriz, bizitza kontrolpera eramatea du xede. Elementu hauek aldatuz doazen heinean, artea ere aldatuz doa eta, berauek apaldu eta desagertuz joan ahala, artea ere hustutze-prozesu batean murgiltzen hasten da. Arteak ezerezean du sorburu eta Ezerezean du helburu. Horren harira, Neolitiko azken aldean, hau da, kobazuloetako pintura arte-agerkondeak apaldu eta desagertu ahala, eta, horren ordezkotako gisa, harrespil txiki bitixi hori agertzen denean, ikusten du aipaturiko arte-ustutze kasik zeharoko bat gure zibilizazioan Oteizak.

Oteizaren irudiko, lau gizon mota baino ez dira eman munduan: historiaurrekoko, nekazaritza-arokoa, erlijio handietako eta itxaropenekoa edo modernoa. Arlo bakoitzean artea oso modu bestelakoan gauzatuko da, baina, edozeinetara ere, lau aro edo gizon motatan arteak aipaturiko eskemari segiko dio. Gure zibilizazioan Neolitiko aro horretan ukitzen du bere gorena, bere hustutze guztizkoa, bere Ezereza; hartara, harrespilaren erdiko huts-tarte hori errealitate osoarekin, zeru eta unibertso guztiarekin jartzen zen harreman armoniosuan. Aipatzen ari naizen negatibotasun-teoria hau aipatzen ari naizela, batek baino gehigok pentsa lezake teoria hau zorrotasun gutxiko edo oinarri intelektualik gabea dela. Baina, gorago esan bezala, ez da hala inolaz; Oteizak teoria negatiboa garatu eta segidan, berori dokumentatu edota urrutiko kultur edo autoreen teoriarekin nahi du parekatu. Berak ere teoria negatiboa aurkitu aurretik ere asko ibili behar izan zuen eta asko ere desibili; joan eta etorri etengabe nekazekin horren ondortik egin zuen topo azkenekoz negatibotasun teoria honekin. Eta bere joan eta etorri horri erreparatuaz,

aurkitzen ditu parekotasunak kristauen teología negatiboarekin (San Agustin garaian jada oso presente zegoen metodo apofatikoa, edota geroago Dionisio Areopagitarengan). Edonola ere, bere teoriatik gertuen ikusten dituenak Europako Eckart Maisua edo Gurutzeko San Juan bezalako mistikoak izango dira. Bestetik Heideggerren metafisika ere oso presente izan zuen, izan ere, berorren esanetan, mística, korrentekontrako moduko bat edo erretiratze moduko bat zen. Ekialdeko Zen-kulturei ere erreparatu zien, gerora, beraien hustutze eta mendebaldeko kulturetakoan artean alde nabarmenak ikusi bazituen ere.

EUSKAL ESTILOA

Orain artean, azaldu dudan moduan hustutze-teoria berri honekin, Oteizaren ekarpena (gure kulturean Neolitikoan kokatu bazuen ere), ez zitzaizun soilik guri interesatzen; hau interes unibertsalekoa dugu, izan ere, autore garaikide askotan aipaturiko hustutze hau ari baitzen kontenplazten bera. Halere, guri, euskaldunoi, bere pentsamenduaren beste hainbat ekarpen interesatzen zaigu. Honen harira, oso aipatzeko modukoa dugu bere oso ondo zedarrituriko euskal estiloa. Bere esanetan, euskal estiloa oso berezia da, bai hitz egiteko, bai izateko moduari dagokienez. Estilo honetako gizonak munduari oso bestetara begiratzen dio eta modu berezi-berezi honek asko baldintzatuko du gerorako estetika. Euskal estiloko gizonaren estetika bere bizimodu eta bizitza-ikuskeratik jaiotzen da; hartara, modu honetan ulerturiko artea bizitzara bere osoan irekitzen da eta, zentzu horretan, antropologikoarekin egiten du oso bat. Artearen euskal ulerkerak azaltze aldera, Oteizak bertsolaritzari erreparatu dio nagusiki, ikusiaz bertan, bertsoetan, atzera begiratu, aurrera egite bat, eta horrela erritmo negatibo moduko bat sortzen dela. Oteizaren esanetan, jatorrizko euskal espirituak zeukan bizitza-arte ikuskera berezi hau bere izakerazko negatibotasun-erritmoan datza eta berorren baitan izkutaturik dagoen dimentsio mistiko-erlijiosoan.

Euskal estiloa estilo latindarretik bereizten ahaleginak eta bi egingo ditu Oteizak. Euskal estiloa amets-mundutik gertuago dago, eta, latindarra, aldiz, iturburu askoz ere arrazionalistalago batetik jaioa da. Hortik esango du lehengoak asmamen aktibo bat sortuko duela eta bigarrenak, ordea, soil-soilik asmamen praktiko bat.

Eta aipaturiko bi arima-estilo hauen kasuren bat aurkezte aldera, esango digu, kasurako, euskal estiloa bertsolaritzan aurki daitekeela nabarmen eta, izen zehatzak ematearren, Mikel Garikoitz edota, era tartekatuan, Unamuno bezalako pertsonen erreparaturiko die. Bestetik, bestaldeko estiloan, Loiolako San Ignazio edota Ignacio Zuloaga pintorea izango genituzke; hauek, euskaldunak izanik ere, euskal estiloari ezin eutsiz, azkenekoz estilo latindar dramatikoarekin bat egin zuten. Hasiara batean azkeneko ideia honi deigarri samar iritziko diogu agian, alegia, euskal jatorri eta derrigor bateratsu, zertan

eman behar ez zen euskal estiloa; zentzu honetan, oso intereseko joko beharko genuke beraren iritzian euskarazko diskurtso batek ez zuela zertan bere baitan euskal estiloa eraman behar, eta, aldiz, gazteleraz emaniko bat euskal estilomoldean egon daitekeela erroturik; edozeinetara ere, azken gogoeta honekin batera ere, beti onartuko du euskararen zer-nolakotasunean berak bereizi zuen delako bigarren estilo hori. Euskara euskal arimaren isla ezin garbiago bada ere, honekin batean ere esaten digu berez, euskal arima galduz gero, alper-alperrikakoak izango direla hizkuntza guztiak eta euskalduna mutu geratuko dela behin-betikoan.

Honaino jada aski esana nagoen bezala, beraren ustean, amaitzea xede ez duen artea dekorazio hutsa da, sal-erosketarako agian balio dezakeena baina, azken finean, sekulan arte mailara ailegatuko ez dena; huts-tasuna edo hustutzea du helburu benetako arteak. Zentzu horretan, euskaldunak iritsi zuten lorpen hori Neolitikoko harrespil txikiarekin. Hustutze hori aurkitzea, batera edo bestera, indibidualtasuna iristeko ezinbesteko baldintza da; hartara, euskaldunak aspaldi zahar-zaharretik iritsia dauka bigarren arima-mota hori, indibiduala, eta, hori ez ezik, hain berezko duen arima taldekoiarekin ondo uztartu ere. Aurkituriko bigarren arima-mota hau, gorago esan bezala, irrazionala eta azkarra da hein batean.

Artikulotxo hau amaitze aldera esan, oso oso presente izan beharko genukeela Oteizak urraturiko bidea. Ez dago batere sakondua bere pentsamendua eta, egian esan, oro har mundu zabalean eta gurean, zer esanik ez, herri eta kultur berezitasunak hain instituzionalizatuak eta, hortaz, askotan hain izozturik dauden garai hauetan, interes handi-handiko beharko genuke herriaren baitako zerizanari heltzen dion gogoeta sakon eta aberats honelako bat.

Igor Goitia